

Lagunarteko gazte-hizkerarekin jolasean

Azken urteetan, euskararen normalizazioan lanean ari den jendearentzat, eta batez ere, gazteekin lan egiten dutenen artean, egoera informaletan euskarazko erregistro kolokiala lantzearen beharra nabarmen ikusten da. *Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean* programarekin gai horretan eragin nahi dugu. Hau da, gazteek hizkuntzarekin jolastea bilatzen dugu, euskararekin ondo pasatzea. Beraiek erabiltzen dituzten esamoldeetatik eta guk proposatutako berrietatik abiatzen gara ligatzeko, haserretzeko eta adar jotzeko gaietan euskarak behar duen tarte berreskuratzera animatzeko.

Gazte hizkera informala erdaraz

Euskara gehien erabiltzen den herrietan ere, gazteek erregistro kolokiala erdaratik hartzeko joera dute, nahiz eta euskarak erregistro hori izan eta beraiek esamolde berriak sortzeko gai izan. Hori, noski, askoz nabarmenagoa da euskararen presentzia horren nabarmena ez den lekuetan. Ingurune horietan gazte hizkera informalaren erabilera gaztelaniaz edo frantsesez ematen da.

Gazte askok ez diote bizitasunik topatzen euskarari, ez dute hizkuntzarekin jolastea lortzen eta, beraz, ez dute euskara egoera ez-formaletan erabiltzen. Andoaingo (edo Durango, Donostia, Elgoibar, Laudio, Altsasu...) hamabost urteko neska edo mutil kuadrila batentzat, ikasketak euskaraz egiten dituztenak eta guraso euskaldunak dituztenak, adin tarte horretan hainbestetan ematen diren haserretze egoeratan hizkuntza nagusia gaztelania izango da; "De qué vas pringau?" edo zerbait gustukoa dutela adierazteko "Qué guay!" edo " mola!" moduko esaldiak naturalki erabiliko dituzte.

Bestalde, erregistro kolokial hori jaso ahal izateko, ingurunea eta familia izan daitezke elementu garrantzitsuenak. Baina, kontuan hartzen badugu, hainbat gazteren ingurunea nahiko erdalduna dela eta gehiengo baten kasuan gaztelerak indar handiagoa duela, transmisio horrek huts egiten du neurri handi batean.

Komunikabideak izan daitezke erregistro kolokiala zabaltzeko eta indartzeko beste bide bat, baina oraingoz oso tresna gutxi dauzkagu euskaraz, Euskal Herri osoan ikus daitekeen telebista kate bakarra eta irrati gutxi batzuk. Gainera, oraindik gai hau gehiegi garatu ez denez, askotan, gazteleran (komunikabide nagusienak Hegoaldean kokatzen baitira) oinarritzen diren esamoldeak zabaltzea lortzen da euskarazko komunikabide hauetatik.

Azkenik, eskolak eta aisialdiko jarduerak dauzkagu transmisioa lantzeko. Aisialdiko jarduerak (kirola, astialdi taldeetako jarduerak, gazte ekipamenduak...) oso interesgarriak izan daitezke gai hau lantzeko. Izan ere, gehienak egoera informaletan oinarritzen diren jarduerak dira. Hala ere, baliabide gutxi dituzten arloak izanik, nahiko motel joan daitezkeen prozesua izan daiteke.

Eskolari dagokionez, ez dago zalantzarik euskararen transmisioan sekulako garrantzia duela. Gazte askok euskararekin duten lotura ia bakarra eskola da. Gainera, ikastetxean bertan, erregistro kolokiala erabiltzeko egoera informal asko aurki daitezke: atsedeen orduak, txangoak, eskolara sartu eta ateratzeko garaia.... Horiek oso gune egokiak izan daitezke euskarazko erregistro informalak erabiltzeko, baina gazteek ez dituzte jaso erregistro horiek, eta beraz, ezinezkoa da erabiltzea.

Egoera aldatzeko egitasmoak

Gai honi heldu nahian, hainbat lan eta egitasmo abiarazi dira azken urteetan: Ikastolen Elkarteak Ahozkotasanari buruzkoa, Kike Amonarrirek, Asisko Urmenetak eta Antton

Olariagak eskainitako hitzaldi eta argitalpenak (Mantxut, Frexkue...) eta Bertsozale Elkartek egindako lanak (Andoni Egaña eta Joxerra Gartzia) besteak beste.

Lan hauetaz gain, Urtxintxa Eskolak eta Ttakun Elkartek haur eta gazte asialdian dugun esperientzia oinarrituz Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean programa garatzen dugu. Lagunarteko hizkera kolokiala erabiltzera animatzea da egitasmo honen azken helburua eta horretarako aurretik aztertu ditugun azken bi arlotan eragin nahi dugu:

- ?? **Aisialdia:** formazio eta interbentzio zuzeneko jardueren bidez: udalekuak, kirol jarduerak, gazte ekipamenduak, internet, aisialdiko hezitzaileen ikastaroak, aterpeetako egonaldiak...
- ?? **Eskola:** ikastetxeetan eta euskaltegietan egiten ditugun saioen bidez.

Nola sortu zen Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean Programa?

Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean (LHJ) Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamenduko Euskara Zerbitzuak sortutako programa bat da. Egitasmo hau Ttakun Kultur Elkartek eta Urtxintxa Eskolak elkarlanean garatzen dute. Urtxintxa Eskolak 17 urte daramatza aisialdiko eta hezkuntzako formazio eta interbentzio egitasmoetan lanean. Ttakun Kultur Elkartea Lasarte-Orian euskararen erabilera bultzatzeko asmoz sorturiko elkartea da, eta sortu zenetik aisialdiko egitasmoak garatu ditu.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamenduko Euskara Zerbitzutik egitasmo hau sortzearen ideia eskaini zenean, Urtxintxak eta Ttakunek elkarlana egin zezaketela ikusi zuten, egitasmoaren helburuek bi elkarteenekin bat egiten dutelako, eta betidanik bi elkarten arteko harremana ona izanik, gai berri bat behar bezala garatzeko aukera hobeak ikusi zirelako.

Programa hau 2001. urtean DBH-ko lau ikastetxetan frogatu zen: Alaitz Institutuan, Lekarotzeko Institutuan, Biurdanako Institutuan eta Lizarrako Ikastolan. Eraitzen ondorioz 2002. urtean programa Nafarroako beste ikastetxeetara zabaltzea erabaki zen, honela, hiru urte hauetan Nafarroako 14 ikastetxetako 1200 gaztetxok hartu dute parte.

LHJ egitasmoa sortu eta berehala, Nafarroatik kanpoko hainbat erakundek programaren inguruko interesa azaldu zuten. Honen ondorioz, 2003. urtean LHJ programa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zenbait tokietara iritsi zen.

Helburua: egoera informaletan euskarazko erregistro kolokiala erabili

Programa honen azken helburua horixe litzateke: gazteak euskarazko erregistro kolokiala erabili dezaten animatzea. Badakigu, gure interbentzioa oso mugatua dela, batez ere denbora aldetik, horregatik, taldeen arabera eta hauen ezaugarri soziolinguistikoak kontutan hartuz, azken helbururaino iristea zaila da. Dena den, talde gehienetan tarteko helburu orokorrak betetzen ditugu:

1. **Gai jakin batzuen inguruan esamolde batzuk landu.**
Nagusiki adar jotze, ligatze eta haserretze gaiak lantzen dira. Gai horietan beraiek erabiltzen dituzten esamoldeak ikusi eta aukera berri batzuk eskaintzen zaizkie.
2. **Hizkuntzarekin jolastu eta ondo pasa daitekeela erakutsi.**
Programa honen saioetan eta jarduera osagarrietan ondo pasatzea oso garrantzitsua izango da, hizkuntzarekin jolastu eta ondo pasa daitekeela ikusteko. Modu honetan, errazagoa izango da aurrerantzean ere landutako esamoldeak erabiltzea, edota beraiek berriak bilatu eta sortzea ere.
3. **Erregistro kolokiala erabiliz gustura sentitu.**

Euskarazko esamoldeak landu eta ikasteaz gain, erabiltzea eskatuko zaie, eta helburua, erabiltzen duten bitartean ondo sentitzea eta beraientzako gauza atsegina izatea ere bada. Honek, aurrerantzean esamolde hauek erabiltzen jarraitzea erraztu dezake.

4. Egoera informaletan euskarazko erregistro kolokiala erabili dezaten animatu.

Euskarazko esamolde erakargarriak eskainiz, gazteak esamolde horiek erabiltzen hastea bilatzen dugu. Horretara pausua emateko, ezinbestekoa da, saioetan gazteak entzule baino partehartzaile zuzenak izatea, etengabe esamoldeak erabili behar izatea.

Nola iritsi helburu horietara?

LHJ programa eskuhartze zuzeneko hainbat saio eskaintzeaz gain, baditu jarduera osagarri batzuk: kuxkuxeroa txata, Txutxu muxuka txat gaztea, Hitzontzia liburutxoa.... Beraz, esan genezake bi ekintza mota egiten direla; alde batetik, gaztetxoekin saio batzuk dinamizatzen ditugu, eta ondoren, zenbait jarduera osagarri eskaintzen dizkiegu.

Saio dinamiko eta partehartzaileak

Oinarrizko programan eskuhartze zuzena hamar orduz luzatzen da. Bost astez, bi orduko bost saio egiten dira. Saio hauen metodologia erabat dinamikoa eta partehartzailea da. Lehenetsunak dira gazteek ondo pasatzea saio hauetan, benetan helburuak lortu nahi badira. Horregatik, azalpenak oso gutxi izaten dira (esamoldeak berak aztertzen direnean soilik ematen dira azalpenak), eta beraien esperientzia eta esamoldeetatik abiatuz, jolas, antzerki eta dinamiken bidez, lortu nahi diren helburuetara iristen ahalegintzen gara.

Hau dela eta, espazioaren antolaketa ere berezia izaten da. Saio gehienetan ikasgela bera erabili ahal izango da (ikastetxetan eginez gero) mahaiak baztertuta eta biribil batean eseriz. Hala ere, programa hau garatzeko komenigarriagoa ikusten da eskuhartze zuzeneko saioak ikastetxetik ateratzea. Honela egin dugun tokietan sortzen den giroa egokiagoa izaten da. Adibidez, Azpeitiko ikastetxeekin programa hau garatzeko garaian, bertako Zapotxoko gazte lekua erabili dugu.

Saio hauen dinamizatzaileei dagokionez, gazteak dira, aisialdiko programetan esperientzia dute, heziketarekin lotutako formazioa dute, hizkuntza naturaltasunez erabiltzeko aparteko arazorik ez dute eta gaztetxoekin partehartzea errazten eta dinamizatzen trebeak dira.

Beraz, metodologia ez da ikastetxean erabiltzen den ohikoa, aisialdiko jardueretan erabiltzen dena baizik. Azken batean erregistro kolokiala lantzeko giro informalek sortzen ahaleginduko behar dugu. Modu honetan, egoera komunikatibo naturalak sortzen ahaleginduko gara, eta egitasmo antolatu bat izatean egoera erabat naturalak sortzea ia ezinezkoa izan arren, egoera horietatik gertu daudenak probokatzea posible da.

Hiru urrats gaiak lantzeko

Nagusiki hiru gai lantzen ditugu: adar jotzea, haserretzea eta ligatzea. Gai hauek lantzeko gidoi berbera erabiltzen dugu:

1. **Dakitena jaso:** gaztetxoek gai horren inguruan erabiltzen dituzten esamoldeak amankomunean jartzen dira.
2. **Proposamen berriak egin:** egon daitezkeen beste hainbat esamolde eskaintzen zaizkie, beraiek dakitena osatzeko asmoz.
3. **Erabili eta hizkuntzarekin jolastu:** esamolde hauek erabiliz eta berriak sortuz hizkuntzarekin jolasten gara.

Hiru puntu hauetaz gain hasiera eta amaierarako dinamika eta ekintzak bereziak antolatzen dira, alde batetik taldeari gaia aurkezteko eta talde giroa lortzeko eta, bestetik, saioari bukaera emateko asmoz, egindakoaren ondorio eta errepasoa egiteko.

Ligatzeari buruzko hizkeraren inguruko saio baten adibidea

Aurreko puntuan aipatu dugun gidoiari jarraituz hauxe da bi orduz egiten dugun saio baten adibidea:

| | | |
|---------------------------------------|--|--|
| Aurkezpena eta girotzea | ?? Ligatzearen gaiaren ahozko aurkezpena ?? Maite zaitut jolasa | Maite zaitut aulki jolas bat da antzezpen kutsuarekin |
| 1. Dakitena jaso | ?? Piropo lehiaketa | Gaztetxoek proposamenak jaso, ondoren amankomunean jartzen eta baloratzen dira eta azkenik dinamizatzaileek piropo berriak proposatzen dituzte |
| 2. Proposamen berriak egin | | |
| 3. Erabili eta hizkuntzarekin jolastu | ?? Hitza lotzearen jolasa | Jolas honekin ligatzearekin lotura duten hitzak sortzen ditugu, izenak eta izenondoak lotuz |
| Errepasoa eta ondorioak | ?? Hitzak korriketan jolasa | Talde jolas honekin lehiaketa txiki bat antolatzen dugu aurretik landu duguna gogoratzeko |

Jarduera osagarriak eta saio bereziak

Aurretik aipatu ditugun hamar orduko saioak egin ondoren, gazteei hainbat jarduera osagarri eskaintzen dizkiegu. Eskaintza hau urtez urte handitzen ari da, honela, 2001. urtean Hitzontzia liburutxoa besterik ez bagenuen ere, 2002. urtean Kuxkuxeroa txata sortu genuen eta 2003. urtean beste txat bat gehitzeaz gain (Txutxu muxuka txat gaztea) Hitzontzia sarean jarri genuen. Aurtengorako, beste hainbat jarduera osagarri berriak prestatzen ari gara. Ikus ditzagun ekimen hauek banan bana:

- ?? **Hitzontzia liburutxoa:** Patrikan gordetzeko liburuxka hau, saioak bukatu eta gero parte hartzaile guztiei banatzen zaie. Bertan saioetan landutako hainbat esamolde jasotzen dira eta orri zuri batzuk uzten dira beraien esapide berriak gehitzeko.
- ?? **Hitzontzia sarean:** Aisia.net web orrian adar jotze, ligatze, haserretze, sentimendu eta beste hainbat gaien inguruko esamoldeak biltzen dira (<http://www.aisia.net/cgi-bin/hitzontzia/hitzontzia.cgi>)

?? **Kuxkuxeroa:** Kuxkuxeroa txat gunearen helburua, gazte hizkera lantzeko asmoz saioetan landu diren esamoldeak erabiltzen jarraitzeko aukera ematea da. Txat-gune moderatua da eta , bertan, hainbat herritako gaztetxoek elkarrizketak euskaraz izateko aukera dute moderatzaile batek zirikatzeko dituela.

?? **Txutxu- Muxuka txat gaztea:** Kuxkuxeroarekin batera euskarazko txat gune ez moderatuaren zerbitzua eskaintzen dugu.

Honetaz gain, bi orduko **saio bereziak** egiten ditugu. Saio hauek gaztetxoei zuzendutako hitzaldi ludikoak dira. Dinamizatzaile batek ligatzeri buruzko teknikak azaltzearen aitzakiarekin zenbait hizkuntza jolas proposatzen dizkie gaztetxoei. Helburua hizkuntzarekin jolastea eta hizkera kolokiala euskaraz erabiliz ondo pasa daitekeela erakustea da.

Nolako erregistroak lantzen dira?

Landu beharreko erregistroak zeintzuk diren eta zein eredu eskaini behar zaien izan daiteke egitasmo honen gairik zailena eta eztabaida gehien sortu ditzakeena. Ahalik eta gauzarik logikoena eta errazena egiteko asmoz, esamoldeen bilketa bat egin zen, ahalik eta zerrenda luzeena osatuz. Zerrenda honetatik, hasiera batean, hizkuntz aldetik onartzea zaila egiten direnak soilik kendu ziren: erdaraz diren esamoldeak edo erdarakada nabarmenak direnak.

Hortik aurrerako guztiak hizkuntza aldetik egokiak direla eta eredu moduan eskaini daitezkeela erabaki da. Hala ere, askotan programa ikastetxeetan lantzen denez eta Ttakun eta Urtxintxa Elkartearen heziketa egitasmoekin oso aurkakoak diren esamolde batzuk topatu ditugunez , bigarren hustuketa batean baloreen aldetik, gure ustez eta malgutasun osoz, oso egokiak ez diren hitzak baztertu dira: sexistak, arrazistak... Saioetan, zerrendatik kanpo arrazoi horregatik utzitako hitzen bat gazteren batek proposatzen badu, hizkuntz aldetik egokia dela baina guk eredu moduan ezin dugula eskaini esaten zaio, eta aukerarik baldin badago bestelako esamolderen bat ere proposatzen zaio.

Eskaintzen diren esamolde guztiek ezaugarri hauek betetzea bilatzen da:

?? Lantzen diren esamoldeak gazteentzako **gertukoak** izan behar dute, benetan erabiltzeko aukera izango dutenak.

?? Esamolde **erakargarriak** eskaini behar dira. Gazteei grazia egin behar diete esamoldeek, benetan adierazi nahi duten hori adierazteko balio dietela konturatu. Zenbait kasutan, gainera, zaila da oso gertukoak dituzten esamoldeak lantzea (ingurune oso erdaldunetan, ziurrenik), eta beraz, esamolde erakargarriak eskainiz gainditzen da hutsune hori.

?? **Hitanoak** presentzia duen inguruneetan, hika erabiltzea bultzatzen saiatzen gara. Hitanoa da, azken batean, euskarak egoera informaletarako duen erregistro naturala.

Programaren hainbat datu

?? Nafarroan hiru urtetan 1200 gaztetxok hartu dute parte.

?? 2003. urtean 1000 lagunek baino gehiagok LHJ programan parte hartu dute eta Euskal Herriko Hegoaldeko lurralde guztietara iritsi gara:

| | |
|----------------|----------------------------|
| ARABA | Amurrio |
| BIZKAIA | Leioa, Gordexola eta Bilbo |

| | |
|-----------------|--|
| GIPUZKOA | Azpeitia, Donostia, Zestoa, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Hernani. |
| NAFARROA | Iruñea, Garralda, Barañain, Berriozar, Otsagabia, Altsasua eta Burlata |

?? Esparru ezberdinetara iristea lortu dugu (ondorengo laukian ikus daitekeen moduan)

| 2003. URTEAN LHJ PROGRAMA GARATU DUGUN HAINBAT ESPARRUTAN... | | |
|---|--------------------------------------|--|
| ESPARRUA | ADIBIDEA | |
| | ANTOLATZAILEA | PROGRAMA |
| UDALEKUAK | Nafarroako Euskara Zerbitzuen Sarean | Pasaiako Arrokaundieta aterpetxean gazteentzako udalekuetan gazte hizkera lantzeko ekintzak |
| AISIALDIKO BEGIRALEEN PRESTAKUNTZA | Zestoako Udala | Herriko begiraleei zuzendutako Euskara suspertzeko ikastaroan gazte hizkerari buruzko saioak |
| INTERNET | Urtxintxa Eskola | AISIA.NET orrialdean gaztetxoek euskarazko gazte hizkera erabiltzeko txat bereziak: ?? txutxu muxuka txat gaztea http://www.aisia.net/txatgaztea.htm ?? kuxkuxeroa txata http://www.aisia.net/kuxkuxeroa.htm |
| GAZTETXOENTZAT SAIOAK | Gordexolako Udala | Herriko 12-16 urteko gaztetxoei zuzendutako gazte hizkerari buruzko saioak (Kultur Etxean, eskola orduetatik kanpo) |
| IKASTETXEAK | Azpeitiako Udala | Herriko institutueta DBH3ko gazteei zuzendutako saioak: antzezpenak, jolasak, talde dinamikak... (Azpeitiako Gaztelekuan, eskola orduetan) |
| EUSKALTEGIAK | Hernaniko aek | Alfabetatze taldeko ikasleei hizkera kolokialari buruzko jarduerak: saioak, hitzaldiak... |

Eta hemendik aurrera zer?

Lagunarteko Hizkerarekin jolasean programa "gaztea" da, hiru urte besterik ez ditu, horregatik pixkanaka, egitasmoa osatzen eta handitzen ari gara. Alde batetik programa bera toki gehiagotara zabaldu nahi dugu eta jarduera osagarriak gehitzen jarraitu nahi dugu: irakasleei zuzendutako gida, lehiaketak... Beste aldetik, gazte hizkera kolokialaren gaiak hausnartzea eta proposamen berriak egitea eta jasotzea gustatuko litzaziguke. Horretarako, udazkenean gazte hizkerari buruzko jardunaldiak antolatuko ditugu, egungo euskarazko gazte hizkeraren egoera aztertzeko eta gazte hizkera indartzeko jarraitu beharreko bidea ikusteko.